# AITOR’EN KONDAIRA
# LA LEYENDA DE AITOR

Zenon Uriguen pasiotarra

Iritzan Aitor Sortalde´tikan
bere zazpi semeekaz
Auñamendi´raiño.
eta bere inguruko lurraldeak
begiratu eban:
Egoaldean, Ebro ibaia
emonkorra
Iparraldean, neurrigabeko
zelayak,
baso ostotxuak ta ibar
naspilduak
Sartalde´an eta ayen atzean,
itsasoa.
Eta Aitor´en semeak antxe
bertan
geratu ziran bizi izateko
zazpi leiñu leenak sortzen.
Ezkutatu zan Aitor´ek
orduan altxor bat leize
baten sokonagonean,
iñoiz ez, nork ez ebastu
zezan.
Eta au irauntzen da,
mendietan ezkututa,
aitalenaren isilekoa.
Bere emaitza.
orrela jaio zan erri bat,
euskotarrena.
Aitor´en semeak.

